



Arropa erosten

Anak euskal produktuak erosi ditu eta orain dendaz denda ibili nahi du. Bidean Michael ikusi du, Michaelak ere joan nahi du arropa-denda batera.

After finding out about Basque products, Ana has visited more shops. She has even met up with Michael. He wants to buy something too.

Entzumena

Dendaz denda

Anak gauza asko erosi nahi ditu. Dendaz denda dabil. Entzun eta asmatu nora joan den. Hau guztia dendetako elkarriketak lantzeko ondo etorriko zaizu.

Ana has visited a lot of shops. Your task is to list the order in which she has visited them. All of this will be very useful for holding simple conversations.



Zapata-denda



Bitxi-denda



Lentzeria



Jantzi-denda

Nork esan du?

Entzun elkarrizketa berriro eta esan nork esan duen: Anak ala dendariak.
Listen to the recording and write who said each sentence.

ZAPATA-DENDAN		JANTZI-DENDAN	
<input type="text"/>	Bota horiek probatu nahi ditut	<input type="text"/>	Urdina nahiago dut
<input type="text"/>	Zein zenbaki?	<input type="text"/>	Urdina ala beltza?
<input type="text"/>	Sentitzen dut baina 36a bakarrik daukat	<input type="text"/>	Zein neurri behar duzu?
<input type="text"/>		<input type="text"/>	Badaukazu 40a?
BITXI-DENDAN		LENTZERIAN	
<input type="text"/>	Oso politak dira. Zenbat balio dute?	<input type="text"/>	Zein prezio dauka pijama urdinak?
<input type="text"/>	Oso garestiak dira	<input type="text"/>	Merkea da
<input type="text"/>	500 euro	<input type="text"/>	Zein neurri da?

Entzumena

Entzun elkarrizketa eta erantzun galderak.
Listen to the recording and answer the questions.

Michaelekin topatu

- ⊕ Nola dago Ana?
- ⊕ Nora joan nahi du Michaelek?
- ⊕ Noiz joan nahi du Nafarroara?
- ⊕ Nora joan nahi du Anak?
- ⊕ Arropa garestia da?
- ⊕ Zer erosi nahi du Anak?
- ⊕ Zer erosi nahi du Michaelek?
- ⊕ Kamisetak asko balio du?













irakurmena



Nola dira kolore hauek euskaraz?. Irakurri pistak eta begiratu ARROPAK irudiari. Laguntza ona dira! Ea asmatzen duzun! Erabili zure aurre-jakintza testuak ulertzeko.

Try to guess the names of the colours in Basque. The clues and the drawings in the ARROPAK file will help you. Use your background to understand the texts.

- | | | | |
|---|----------------------|--|----------------------|
| 1.-  | <input type="text"/> | 7.-  | <input type="text"/> |
| 2.-  | <input type="text"/> | 8.-  | <input type="text"/> |
| 3.-  | <input type="text"/> | 9.-  | <input type="text"/> |
| 4.-  | <input type="text"/> | 10.- | <input type="text"/> |
| 5.-  | <input type="text"/> | 11.-  | <input type="text"/> |
| 6.-  | <input type="text"/> | | |

Arropak



Emakumeen kolorea da morea, feministen kolorea. Hemen BEROKIA da morea.

Piraten bandera beltza da. Hegazkin guztiek dute kutxa beltza. Batman beltza da, TXAPELA ere bai.

Bakearen kolorea. Amerikako Estatu Batuetako (USA) presidentea bizi da Etxe Zurian. Ezkontza askotan emaztegiaren kolorea da. GALTZA MOTZAK zuriak dira.



Zuria eta beltzaren nahasketa da grisa. Oso kolore tristea da. Hemen PIJAMA da grisa.

Pantera famatu bat da arrosa. Rock talde bat ere bai. Talde horrek kantu famatu asko ditu, adibidez, "The wall". Italiako giroan, lehenengoaren kamiseta da arrosa. Hemen kamisoi.

Esperantzaren kolorea da berdea. Belarra ere berdea da. Irudian GONA eta ALKANDORA dira berdeak.

Zerua da urdina; itsasoko ura ere bai. Hemen BAKEROAK dira urdinak.

Gorriaren eta horiaren nahasketa da laranja. Frutak ere kolore hori du eta, Euskal Herrian, gas-botilak ere bai. Hemen ez dago kolore laranja. Bueno, ia-ia KAPELA da laranja.

Odolaren kolorea da gorria, Liverpoolen elastikoa da gorria. Amapolak ere gorriak dira. Athletic-en kamiseta zuria eta gorria da. Irudian SOINEKOA da gorria.

Limoia da horia, Toureko irabazlearen mailota ere bai. Estropadetan Oriok du kolore hori. Irudian GALTZAK dira horiak. Beatlesen submarinoa ere bai.

Kolore iluna da marroia, egurraren kolorea da. Kakaren kolorea da. Hemen TRAJEA da marroia, TXALEKOA ere bai. GERRIKOA ere bai.

Irakurmena

Irakurri testuak eta asmatu: nongoa da bandera?
Read the texts and guess which country the flag is from.

Nongoa da bandera?



Euskal Herria
Argentina Alemania Espainia
Txina Kanada
Senegal Brasil

- *Bandera hau berdea da, baina horia badu eta urdin pixka bat ere bai.*
- *Bandera hau gorri-gorria da. Irudi hori bat du.*
- *Bandera honek hiru marra ditu. Bi gorriak dira, bestea zuria.*
- *Berdea, horia eta gorria da bandera hau.*
- *Hiru marra ditu, gorria, horia eta beltza.*
- *Hiru marra ditu. Bi gorriak dira, bestea, erdikoa, horia.*
- *Zuria eta urdina da, urdin argia.*
- *Zuria, gorria eta berdea da. Gurutzea eta X bat ditu.*

fororako

Bandera ezkutua...

Munduan bandera asko daude. Deskribatu bi bandera eta bidali mezua forora.
Ikaskideek nongoak diren asmatu behar dute.

The world is full of flags. Describe two and send a message to the forum. Your classmates will try to guess which country they are from.



Irakurmena

Irakurri esaldiak eta asmatu norena den jantzia.

Read the texts and guess who they are about.

Nolako arropa? Zertarako?



Iturgina



Medikua



Tenista



Suhiltzailea



Margolaria



Sukaldaria

Nik arropa zuria dut. Nire arroparen gainean janzten dut bata zuria. Kirofanoan banago, berdea da nire bata. Orain bata irekita dut. Batak poltsikoa du fonendoskopioa gordetzeko. **Zer naiz?**

Nik txano berdea dut, alkandora ere bai. Orain peto zuria dut, baina askotan buzo urdina ibiltzen dut. **Zer naiz?**

Nik arropa berezia behar dut. Buruan kaskoa dut eta gaur uniforme gorria dut, beste batzuetan urdina. Nire lana oso arriskutsua da eta eskularruak behar ditut ez erretzeko. **Zer naiz?**

Nik txano zuri luzea dut, ileak lapikora ez erortzeko. Nire jantzia zuria da, dotorea. Guk dotore jantzi behar dugu, gure bezeroak gustura egoteko. **Zer naiz?**

Nik ere txanoa dut, txano zuria, ez zikintzeko. **Zer naiz?**

Nik gona motzak ditut, eta nire elastikoak ez du maukarik, eroso egoteko. Buruan bisera dut eguzkiak begietan ez jotzeko. **Zer naiz?**

Bideoa

Etxe batean aberia bat dago. Iturginak behar dituzte konpontzeko. Ikusi bideoa eta erantzun galderei.

You are going to watch a video in which a couple of plumbers go to repair something. Watch carefully and do the exercises.

Langileak etxean

Zein da erantzun egokia? Zer esan dute?
What is the right answer? What have they said?



Arratsalde on, etxekoandrea?

- Etxekoandrerik ez dago.
- Eguraldi ona!
- Etxekoandrea ez dago.

Zerbait behar duzue?

- Ez dugu ezer behar.
- Bai, kubo bat behar dugu.
- Kuborik ez dugu behar.

Giltza handia...

- Autoan dago
- Tailerrean dago.
- Ez dute giltza handirik.

Badago zulorik?

- Ez
- Bai

Baduzue mailurik?

- Bai, sukaldean dugu.
- Etxean ez dugu mailurik
- Zuek ez duzue ezer?

Non dago aberia?

- Etxean ez dago aberiarik
- Beste etxean
- etxean

Lotu izenak eta irudiak. Ondoren, adierazi ZERTARAKO diren.
Connect the pictures and their names. Then say what they are for.

Giltza handia

Linterna

Mailua

Ontzia

**Ura hartzeko
Torlojua askatzeko
Ikusteko
Aberia aurkitzeko**




**Aberia konpontzeko
Asko ikasteko...**

azalpena

Zertarako? ... t(z)eko

Helburuzko esaldiak egin nahi baditugu, -T(Z)EKO forma erabiltzen dugu.
One way to express aim is by adding the suffix -T(Z)EKO to the verb root.

Etorri  ETORTZEKO (In order to come)
Joan JOATEKO (In order to go)

Galdera ZERTARAKO da.

The corresponding question is ZERTARAKO (to what end).

Adibideak

Zertarako da ura? Ura edateko da. Zertarako da dirua? Dirua gastatzeko da. Zertarako dira begiak? Begiak ikusteko dira.	What is water for? Water is for drinking. What is money for? Money is for spending. What are eyes for? Eyes are for seeing with.
--	---

-TEKO -it is used with participles ending in -N, -SI, -ZI, -TSI, -TZI, -TXI.
-N, -SI, -ZI, -TSI, -TZI, -TXI.

-TZEKO		-TEKO	
Atera	ATERATZEKO	Eman	EMATEKO
Bazkaldu	BAZKALTZEKO	Edan	EDATEKO
Bete	BETETZEKO	Jan	JATEKO
Ekarri	EKARTZEKO	Egin	EGITEKO
Eskatu	ESKATZEKO	Entzun	ENTZUTEKO
Galdetu	GALDETZEKO	Erosi	EROSTEKO
Garbitu	GARBITZEKO	Ikasi	IKASTEKO
Hartu	HARTZEKO	Ikusi	IKUSTEKO
Hil	HILTZEKO	Erakutsi	ERAKUSTEKO
Ibili	IBILTZEKO	Irabazi	IRABAZTEKO
Jo	JOTZEKO	Utzi	UZTEKO
Lagundu	LAGUNTZEKO	Itxi	IXTEKO

ariketa

Erantzun TZEKO erabiliz.
Answer the questions using T(Z)EKO.

Zertarako dira...?













Belarritakoak
Berokia
Betaurrekoak
Eskularruak
Gorbata
Kirol zapatilak
Lepokoa
Txanoa
Txapela



Ondo ikusi
Dotore egon
Kirola egin
Bilerara joan
Hotzik ez pasatu
Euskal dantzak dantzatu
Lepoa goxo-goxo eduki
Burua berotu
Eskuak berotu

ariketa

Zertarako dira hauek?

			
Xurgagailua	Autoa	Hegazkina	Bainera
			
Upela	Bateria	Kanpaia	CD-a
			
Konputagailua	Arkatza	Matea	Ile-lehorgailua

Osatu esaldiak goiko hitzekin eta aditz hauekin.

Write sentences using these words and the verbs in the list. Here is an example:



Adibidea

Antena telefono mobilak funtzionatzeko da.

Xurgagailua
Autoa
Hegazkina
Bainera
Upela
Bateria
Kanpaia
CD-a
Konputagailua
Arkatza
Matea
Ile-lehorgailua

Garbitu
Hautsa kendu
Herri batetik bestera joan
Idatzi eta marrazkiak egin
Ilea lehortu
Jendea esnatu
Lagunekin edan
Lanak egin
Musika entzun
Musika jo
Petrolio gorde
Urrutira bidaiatu

Ordenatu esaldiak

Ordenatu esaldiak.

Put the sentences in order. Remember to start sentences with capital letters and end them with full stops.

nahi. baina ez dira, ditut Betaurrekoak politik

duzu zertarako erosi hori? gona

balio. horrek ez asko gona du

txuri bat dut. nahi Nik txano

soineko nahi hori? Zertarako duzu

hori. gordetzeko erosi gauzak dugu poltsa

nahi joan Nora duzue?

dute joan ez lentzeriara Lagunek nahi.

Azken lana**Egin ariketak eta bidali irakasleari****Do the exercises and send them to your teacher****Galderei erantzun**

Answer the questions

Nor zara zu? Nongoa zara? Zenbat urte dituzu?
 Zenbat minutu ditu orduak?
 Zenbat hatz (finger) dituzu esku batean?
 Zenbat ordu ditu egunak?
 Zenbat hilabete ditu urteak?
 Zenbat egun ditu martxoak (march)?
 Zenbat segundo ditu minutuak?
 Zenbat dira hogeitahi gehi (+ plus) hemeretzi?
 Zenbat dira hamasei gehi hamazortzi?

Esaldiak zuzendu

Some of these sentences are incorrect. Correct them.

Gizon horrek oso aberatsa da.
 Pello asko diru du.
 Nekane oso emakume langilea da.
 Auto hau asko balio du.
 Zuk tabakoa nahi zara.
 Zuek Tolosan bizi zarete.
 Ikasleak aldizkariak dituzte.
 Etxe hau oso handia da.
 Etxe honek leiho politak du.
 Hau neska oso hitzuna da.
 Zu diru gutxi duzu.
 Sagarrek asko balio dute.
 Guk ez dugu sagarrak erosiko.

Itzuli esaldiak

Translate the sentences.

Firefighters need water.
 The parking is on the right.
 Do you want to go to the cinema? Yes, but I need money.
 I do not have money.
 We need a parking in the hospital.
 How much are oranges worth?
 Oranges are worth two euros.
 We have no oranges.

Galderei erantzun

Answer the questions.

Zertarako da boligrafoa?
 Zertarako da eskola?
 Zertarako dira liburuak?
 Zertarako da labea?
 Zertarako da xaboa?
 Zertarako ikasten duzu zuk?
 Zertarako da telefonoa?
 Zertarako matrikulatu zara euskaltegian?
 Zertarako sartu zara Kafe-txokoan?
 Zertarako egiten duzu dieta?
 Zertarako jarri dituzu partxeak?

Idatzi
 Ikasi
 Irakurri
 Arraina erre
 Garbitu
 Lanpostua aurkitu
 Hitz egin
 Euskara ikasi
 Txateatu
 Argaldu
 Ez erre

Boligrafoa
Eskola
Liburuak
Labea
Xaboa
Nik
Telefonoa
Ni
Nik
Nik

Mintzamena

Lagun batek audio-mezua bidali dizu. Entzun eta erantzun.

A friend has left you a voice message. Listen to it and reply. Record a voice message and upload it to the platform.

**Mezuaren transkripzioa:**

Kaixo, Manuel, zer moduz? Ondo? Arazorik gabe? Zure bizitza oso gogorra da, ezta?
 Informazio pixka bat nahi dut: nolakoa da zure arropa? Beti beltza? Zertarako duzu txilibitua? Eta aurikularrak?
 A! eta txartel horia eta gorria?
 Orain sprai bat ere baduzue. Zertarako? Lurra margotzeko?
 Orain varra duzue, ezta? Zertarako? Ona da?
 Bueno, Manuel. Nahi baduzu, erantzun.
 Mila esker

Antton

Erantzun Anttoni. Reply to Antton.**Hiztegia**

Txilibitua: whistle
 Txartel: card
 Sprai: spray
 Var: Video Assistant Referee
 Nahi baduzu: if you wish

Ikasgai honetan hau ikasi duzu. In this lesson you learned this:

- Arropa eta koloreen izena.
- The names of clothes and colours.

- Gauzak zertarako diren adierazten. ZERTARAKO
- To say what things are for. ZERTARAKO.

- ZERTARAKO galderari erantzuten: ...-T(Z)EKO.
- To answer the question ZERTARAKO: ...-T(Z)EKO.

- Eta, gainera, orain arte ikasitakoaren errepasoa ere egin duzu.
- You have also revised the content of previous lessons and used a lot of vocabulary.


Hiztegia

Amapolak	Poppy
Argazkigintza	Photography, photographers' work
Arkitektura	Architecture
Arriskutsua	Dangerous
Arropa	Clothes
Beherapenetan	(in the) sales
Belarra	Grass
Belarritakoak	Ear rings
Berrikuntza	Innovation
Bezero	Customer
Dotorea	Elegant
Elastikoa	T-shirt
Erakargarria	Attractive
Eskaparatean	In the shop window
Eskularruak	Gloves
Ezer	Nothing
Ezkontza	Wedding
Gainean	On (top of)
Kamiseta	T-shirt
Kutxa	Box
Lapiko	Pot
Maisu	Teacher (master/mistress)
Nabil	First person of the verb to walk: I walk.
Nahasketa	Mixture
Neurri	Measure
Odola	Blood
Sentibera	Sensitive
Txano	Cap
Zerua	Sky
Zuzenak	Direct



Euskal diseinatzaileak eta moda

Euskaldunok baditugu bi diseinatzaile munduan oso ezagunak: **Paco Rabanne** (1934) eta **Cristobal Balenciaga** (1895-1972). Bi diseinatzaile horiek oso ospetsuak dira eta moda munduan oso ezagunak. Paco Rabanne Frantzian bizi da, baina Pasaian jaio zen eta Balenciaga, Getarian. Getaria kostaldeko herri txiki zoragarria da. Getarian Balenciaga fundazioa dago eta bere diseinuak han daude. Balenciaga maisu handia izan da, eta Sofia Loren eta Ava Gardner jantzi ditu.



Balenciaga



Rabanne

Diseinatzaile gehiago ere baditugu. **Angela Arregui** (1939-2006) diseinatzaile bilbotarrak berrikuntza handiak ekarri ditu material arloan eta oso diseinatzaile fina eta sentibera da.



Modesto Lomba gasteiztarra da. Bere moda minimalista da. Marrazki eta forma zuzenak atsegin ditu.

Miguel Palacio (1962) bilbotarra da. Parisen bizi da. Kaleko emakumea jantzi nahi du, gazte eta erakargarria.

Miriam Ocariz (1968) bilbotarra da. Bere diseinuak alaiak eta atseginak dira. Kolore biziak eta orijinalak. Serigrafia atsegin du.

Lemoniez (1964) donostiarra da. Moda dotorea eta modernoa atsegin du. Gasa eta zeta dago bere kolekzioan.

Marta Teran bilbotarra da. Denda txikia izan du orain arte, baina orain enpresa egin du eta Bilbon indar handia du.

Jota+Ge. Juana Ruiz eta Garbiñe Urdanpilleta diseinatzaile bizkaitarrek emakume segurua, praktikoa eta sexya nahi dute.



Modesto
Lomba

Miguel
Palacio

Miriam
Ocariz

Fernando
Lemoniez

Marta
Teran

Juana Ruiz
G. Urdanpilleta

Material osagarria

Jantzi-dendan

Ikusi bideoa eta adierazi zer nahi duen mutilak.
Watch the video and mark what the boy wants to buy.



Praka estuak	<input type="checkbox"/>
Praka zabalak	<input type="checkbox"/>
Txamarra	<input type="checkbox"/>
Alkandora	<input type="checkbox"/>
Jertsea	<input type="checkbox"/>
Txalekoa	<input type="checkbox"/>
Zapatak	<input type="checkbox"/>

binaka

Zer nahi duzu?

Hartu fitxa eta aukeratu hiru jantzi. Pentsatu zertarako nahi dituzun. Ondoren, ikaskidearekin elkartu eta elkarri zer aukeratu duzuen galdetu.

Choose three pieces of clothing and think what you want them for. The talk with a classmate about what you have chosen and why.

